

BALOREZKO PROPOSAMENA



Pertsona itsuentzako erraztasun handiagoa eskaintzea da gure produktuaren helburu nagusia. Hau da, pertsona itsuek duten mugikortasun maila handiagoa lortu nahi duen teknologia berritzailea da. Horren bidez, erraztasun handiagoz desplazatuko lirateke haien eguneroko ekintzak egiteko edo dena delakoa egiteko. Gainera, makilean erantsita ditu eguzki panel batzuk bateria modu independentean kargatzeko eta horrela gauzak askoz gehiago errazten dira.

Makila honek, pertsona itsuak beren ingurutik mugitzeko eta autonomia gehiago sentitzeko aukera ematen du, erraztasun handia eskaintzen baitu. Era berean, hainbat teknologia eta sensoreren bidez egindako integrazioek, pertsona itsuen autonomia eta independentzia hobetzeko bideak irekitzen ditu. Horrela, pertsona itsuak beren mugikortasuna hobetzeko eta beren ingurunean aktiboki parte hartu ahal izateko aukera izango dute, bermatuz, haien bizitza kalitatea hobetzeko bideak irekitzen direla.

